**NOTA DE PRENSA**
**PROTOCOLO ACCESOS A IRATI-OTOÑO 2024**

Las Juntas Generales de los valles de Aezkoa y Salazar trabajamos en común en la gestión de la Selva de Irati. Conocedores de la gran afluencia de personas que se da durante el otoño a este espacio, y en particular en determinadas fechas, seguimos colaborando en la puesta en marcha de dispositivos de regulación. Una vez más durante este año se ha establecido un protocolo de funcionamiento consensuado con diferentes agentes del territorio, con el objetivo de que quienes visitan Irati accedan de manera ordenada y puedan realizar su visita de una forma satisfactoria, evitando afecciones al entorno y dando una imagen de coordinación y seguridad para el visitante.

Este protocolo, como en años anteriores, ha sido elaborado en colaboración entre las Juntas de Aezkoa y Salazar con sus respectivos equipos de Guardería, la Dirección General de Turismo, Comercio y Consumo, la Oficina de Turismo de Ochagavía, Policía Foral y asociaciones turísticas Irati-Orreaga e Iratialdea.

El protocolo se va a activar en los sábados 19 y 26 de octubre y el puente de Todos los Santos.

- Desde Ochagavía/Otsagabia a Casas de Irati, por la NA-2012
- Desde Orbaizeta hasta la presa del Embalse de Irabia, por la NA-2030.

En cada una de las entradas se contabilizará el número de vehículos que pueden acceder, en función del aforo de aparcamientos, y cuando el aforo esté completo se cortará puntualmente el acceso; Éste se reabrirá conforme vaya habiendo plazas de aparcamiento disponibles. La labor de control y cierre se realizará de manera coordinada entre la Policía Foral, Guardas y diferentes servicios de información turística.

Se recuerda que se cortarán los accesos a partir de las 18:00 horas, para evitar el cruce de los vehículos que pretenden acceder a Irati y el tráfico fluido de vehículos de salida.

Para más información sobre la situación de los accesos, contactar con:

- Oficina de Turismo de Ochagavía/Otsagabia: Tlf: 948 890 641
- Oficina de Turismo de Aribe: Tlf: 948 764 376
- Oficina de Turismo de Orreaga/Roncesvalles: Tlf: 948 760 301

Desde los valles de Aezkoa y Salazar queremos destacar que en el entorno de la Selva de Irati los y las visitantes tienen multitud de espacios

naturales en los que poder disfrutar de vistas panorámicas y paseos por los bosques, contemplar los colores otoñales y descubrir los rincones de nuestros pueblos. Entre otros, destacamos:

- Acceso a la Selva de Irati desde Pikatua, Centro de Montaña Irati- Abodi situado en PK 7 de la carretera NA2011, lugar ideal como alternativa al parking de Casas de Irati, con amplio aparcamiento, bar Restaurante, merenderos; Rutas a pie por el bosque como el Sendero Cerrillar SL64 A, caminar por la GRT-10 para acceder a la Sierra de Abodi y tener espectaculares vistas del hayedo de Irati, o realizar la ascensión al pico Ori , primer 2.000 m del Pirineo. O las recientemente señalizadas rutas de https://www.irati.org/orhi-bortz-kolore/

- Acceso a la Selva de Irati desde Orbaizeta al collado de Azpegi: Senderos locales como el de Mendilatz SLNA 58B , Ursario SLNA57B, ascensión al monte Urkulu o la estación megalítica de Azpegi.

- Senderos locales en las localidades de Valle de Salazar. Senderos tradicionales que nos acercan a Ermitas, a bordas o bosques centenarios en los alrededores de pueblos. Senderos de la cascada de Jasule (Ezcároz), Cascada de Orkatua en Oronz. Ruta de Gartxot en Izalzu, Camino viejo a Irati y Muskilda en Otsagabia entre otros muchos.

- Senderos locales del Valle de Aezkoa, en diversas localidades Abaurregaina (San Miguel), Abaurrepea (Asketaldea), Hiriberri, etc. y cómo no los de la red www.iratiaritza.com. (Aribe, Garaioa, Garralda, Olaldea, etc.)

- Senderos Valle de Arce: https://www.valledearce.com/geografia-naturaleza/tracks-de-rutas-por-el-valle/

Además disponen de una App de rutas a pie y bicicleta por los cuatro territorios del proyecto de cooperación transfronteriza SASC IRATI: valles de Aezkoa y Salazar, y Valles de Cize-Garazi y Soule-Zuberoa. Para más información consultar la web: www.irati.org.

**PRENTSA OHARRA**
**IRATIRA SARTZEKO PROTOKOLOA -2024ko UDAZKENA**

Aezkoa eta Zaraitzu ibarretako Batzorde Nagusiek elkarrekin kudeatzen dugu Iratiko oihana. Jakitun garenez udazkenean, eta bereziki egun jakin batzuetan, gune horretara jende asko etortzen dela, elkarlanean ari gara, bisitaldiak antolatzeko neurriak martxan jartzeko. Aurten ere, lurraldeko hainbat eragilerekin adostutako funtzionamendu protokolo bat ezarri da, Irati bisitatzen dutenak modu ordenatuan sar daitezen eta bisita modu egokian egin ahal izan dezaten, inguruneari kalterik eragin gabe eta bisitariarentzako koordinazio- eta segurtasun-irudia emanez.

Protokolo hori, aurreko urteetan bezala, lankidetzarekin prestatu da, Aezkoa eta Zaraitzuko batzordeen eta haien zaintza-taldeen, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiaren, Otsagabiako Turismo Bulegoaren, Foruzaingoa eta Irati-Orreaga eta Iratialdea turismo elkarteen artean.

Protokoloa urriko larunbatetan aktibatuko da, urriaren 19 eta 26an, hain zuzen ere, azaroko Santu Guztien Eguneko zubiaz gain.  Honako sarbide hauek kontrolatuko dira:

- Otsagabiatik Iratiko Etxeetarako tartean (NA-2012 errepidea)
- Orbaizetatik Irabiako urtegirakoan (NA-2030 errepidea).

Sarbide bakoitzean barnealdeko aparkalekuen edukieraren arabera sar daitekeen ibilgailu kopurua zenbatuko da. Aparkaleku horien edukiera osoa betetzen denean, sarbidea moztuko da beharrezko denboran, eta aparkatzeko lekua egiten den heinean irekiko da berriro. Kontrolatze eta ixte lana Foruzaingoaren, Zaindarien eta turismo-informazioko hainbat zerbitzuren artean koordinatuta eginen da.

Gogoan izan 18:00etatik aurrera itxiko direla sarbideak, Iratira sartu nahi duten ibilgailuak eta irteerako ibilgailuen trafiko arina gurutzatu ez daitezen.

Sarbideen egoerari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, deitu:

- Otsagabiako Turismo Bulegoa: Tel.: 948 890 641
- Aribeko Turismo Bulegoa: Tel.: 948 764 376
- Orreagako Turismo Bulegoa: Tel.: 948 760 301

Aezkoa eta Zaraitzuko ibarretatik azpimarratu nahi dugu Iratiko oihanaren inguruan bisitariek badituztela naturgune ugari, oso leku aproposak, basoetako ikuspegi panoramikoez eta ibilaldiez gozatzeko, udazkeneko koloreak ikusteko eta gure herrietako txokoak ezagutzeko. Horien artean, besteak beste, honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Iratira Pikatuan barna sartzea, Irati- Abodiko Mendi Gunea: NA2011 errepideko 7 Km-n dago, eta Iratiko Etxeetako aparkalekuaren ordezko ezin hobea da. Aparkaleku handi bat, jatetxea eta azkaltokiak daude bertan. Basoan barna ibiltzea dago, Cerrillar-eko Ibilbidea SL64 A edo GRT-10, besteak beste. Azken ibilbide horri jarraituta Abodi mendira joan daiteke (bertan Iratiko pagadiaren gaineko ikuspegi ederrak daude) edo Ori mendira (Pirinioetako 2.000 m-tik goitiko lehen mendia).

- Iratira sartzea Orbaizetatik Azpegiko lepora joaten den bidean barna: toki ibilbideak egin daitezke, Mendilatz SLNA 58B, Ursario SLNA57B, besteak beste; Urkulu mendira igo edo Azpegiko Megalitoen Multzoa ikusi ere.

- Zaraitzuko herrietako toki ibilbideak. Bide zaharrak dira, eta herrien ondoko ermita, borda edo basoetara eramaten dute. Jasuleko Ur-jauziko Ibilbidea (Ezkaroze), Orkatuko Ur-jauzia (Orontze), Gartxoten ibilbidea (Itzaltzu), Irati eta Muskildako Bide zaharra (Otsagabia), besteak beste.

- Aezkoa bailarako ibilbideak, hainbat herritan: Abaurregaina (San Migel), Abaurrepea (Asketaldea), Hiriberri, etab. Nola ez www.iratiaritza.com sarekoak. (Aribe, Garaioa, Garralda, Olaldea, etab.

- Artzibarreko ibilbideak: https://www.valledearce.com/geografia-naturaleza/tracks-de-rutas-por-el-valle/

Gainera, berriki, oinez nahiz bizikletaz egin daitezkeen ibilbideak eskaintzen dituen App-a berritu da. Aplikazioa SASC IRATI osatzen duten mugaz bi aldeetako lau lurraldeetako lankidetza proiektuaren ondorioa da: Aezkoa, Zaraitzu, Garazi eta Zuberoa. Informazio gehiago, www.irati.org webgunean.